

3. mailako idazlana. IKUSIZ IKASI: Merkataritza-gune handiak-Idazlana irakurgai

Hementxe duzu ikasleak idatzitako jatorrizko testua:



MERKATARITZA-GUNE HANDIAK

Azkenaldi honetan nork ez du entzun "URBIL" merkatal-gunearen iragarkirik irratian?

Gure gaur egungo gizarte honetan gero eta arruntagoa bihurtzen ari da honelako merkatal-gune handiak edonon ahurkitzea.

Hauek ere gauza guztiak bezala beren abantailak eta desabantailak dituzte.

Hipermerkatuak izatean beren produktuak denda normaletakoak baino askoz merkeagoak izaten dira. Izan ere, fabrikatzaileekin akordio bereziak egiten baidituzte. Denda txikien aldean nola askoz gauza gehiago erosten duten, fabrikatzaileek merkeago ematen diete honela guri merkeago saltzen dizkigutelarik.

Jendeak nahiago izaten du honelako leku batetara joatea, ez soilik merkeagoa delako baizik eta aukera gehiago eskeintzen dutelako.

Gainera, ez da ahaztu behar aisialdirako prestatuta daudela, eta normala den bezala jendeak denda txikiak baztertu eta bertara joatea erabakitzen du.

Baina hauek ere badituzte beren desabantailak. Nola merkea iruditzen zaigun, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugularik.

Hau, ez da harrizkoa. Honenbeste argi, kolore eta txorakerirekin erdi txoratuta geratzen gara eta Questi-online webgunean sortua

azkenean arratoiak tranpan bezala erortzen gara kontsumismoaren hatzaparretan.

Hipermerkatu gehiago sortu ahala gero eta denda txiki gehiago itxi dituzte. Honek niri pena apur bat ematen dit zeren ezin da konparatu zure etxe aldameneko dendako andreak emango dizun goxotasuna merkatal- gune handi bateko milaka neskak eta mutil estresatuk emango dizutenarekin.

Bestalde, honelako toki batean denbora asko alperrigaltzen da. Dena hain da polita eta merkea konturatu gabe orduak eta orduak ematen ditzakegularik karrotxoari bultzaka.

Nire ustetan argi dagoena hau soilik ez dela moda bat da, gure beharrei erantzuteko sortutako erainkin handiak baizik. Jendeak erosotasuna maite du eta hauek erosotasunaren errainuak direla esan daiteke. Dena daukazu bertan arraindegia, harategia,... ez daukazu herrian bezala dendan denda ibili beharrik, honelakotan dena daukazulako.

Gainera, erosketak egin eta gero kafetxo bat hartu eta musika ere entzun dezakezu. Zer nahi duzu gehiago?

Horrenbestez, esan daiteke kupidarik gabe kontsumitzeko eta entretenitzeko daudela eraikiak merkatalguneak.

Nik neuk behintzat erabaki bat hartu dut, etxe alboko dendara joatea iruditzen zait onena. Izan ere nire etxe alboko barazkiek dute inongo ongari kimikorik eta bertako andreak maitekiro agurtuko nau kalean ikustean.

Hipermerkatuak merkeak badira, baina, zenbateraino? Ahin merkea iruditzen zaigu azkenik behar dugunaren bikoitza erosten dugula.

Arestian aipatu dudan bezala diru eta denbora asko galtzen da, beraz, ni neu ez naiz merkataritza-gune handien aldekoa.

Jarraian duzun idazlan honek baditu zenbait molde makur. Gure asmoa ez da denei buruzko oharra egitea, baizik eta bakar bati helduz, eraginkor izatea.

Oraingoan, idazlana trakesten duen arazo bati buruzko iradokizunak azalduko ditugu: ondorioa adierazteko, **-(e)larik** moldeaz baliatzen da. Hainbestetan errepikatzea baliabide berbera astun samarra gertatzen denez, eta soberan daudela ikusiz, beste modu batera antolatu ditugu esaldiak. Ea zer iruditzen zaizun!

Gerundioa zuzen erabiltzeko arauak eta adibideak [hemen](#) kontsultatu ditzakezu.



MERKATARITZA-GUNE HANDIAK

Azkenaldi honetan nork ez du entzun "URBIL" merkatal-gunearen iragarkirik irratian?

Gure gaur egungo gizarte honetan gero eta arruntagoa bihurtzen ari da honelako merkatal-gune handiak edonon ahurkitzea.

Hauek ere gauza guztiak bezala beren abantailak eta desabantailak dituzte.

Hipermerkatuak izatean beren produktuak denda normaletakoak baino askoz merkeagoak izaten dira. Izan ere, fabrikatzaileekin akordio bereziak egiten baidituzte. Denda txikien aldean nola askoz gauza gehiago erosten duten, fabrikatzaileek merkeago ematen diete **honela guri merkeago saltzen dizkigutelarik.**

Jendeak nahiago izaten du honelako leku batetara joatea, ez soilik merkeagoa delako baizik eta aukera gehiago eskeintzen dutelako.

Gainera, ez da ahaztu behar aisialdirako prestatuta daudela, eta normala den bezala jendeak denda txikiak baztertu eta bertara joatea erabakitzen du.

Baina hauek ere badituzte beren desabantailak. Nola merkea iruditzen zaigun, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu, **azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugularik.** . Hau, ez da harrizkoa. Honenbeste argi, kolore eta txorakerirekin erdi txoratuta geratzen gara eta azkenean arratoiak tranpan bezala erortzen gara kontsumismoaren hatzaparretan.

Hipermerkatu gehiago sortu ahala gero eta denda txiki gehiago itxi dituzte. Honek niri pena apur

bat ematen dit zeren ezin da konparatu zure etxe aldameneko dendako andreak emango dizun goxotasuna merkatal- gune handi bateko milaka neskak eta mutil estresatuk emango dizutenarekin.

Bestalde, honelako toki batean denbora asko alperrigaltzen da. Dena hain da polita eta merkea **konturatu gabe orduak eta orduak ematen ditzakegularik** karrotxoari bultzaka.

Nire ustetan argi dagoena hau soilik ez dela moda bat da, gure beharrei erantzuteko sortutako erainkin handiak baizik. Jendeak erosotasuna maite du eta hauek erosotasunaren errainuak direla esan daiteke. Dena daukazu bertan arraindegia, harategia,... ez daukazu herrian bezala dendan denda ibili beharrik, honelakotan dena daukazulako.

Gainera, erosketak egin eta gero kafetxo bat hartu eta musika ere entzun dezakezu. Zer nahi duzu gehiago?

Horrenbestez, esan daiteke kupidarik gabe kontsumitzeko eta entretenitzeko daudela eraikiak merkatalguneak.

Nik neuk behintzat erabaki bat hartu dut, etxe alboko dendara joatea iruditzen zait onena. Izan ere nire etxe alboko barazkiek dute inongo ongari kimikorik eta bertako andreak maitekiro agurtuko nau kalean ikustean.

Hipermerkatuak merkeak badira, baina, zenbateraino? Ahin merkea iruditzen zaigu azkenik behar dugunaren bikoitza erosten dugula.

Arestian aipatu dudan bezala diru eta denbora asko galtzen da, beraz, ni neu ez naiz merkataritza-gune handien aldekoa.

Noiz erabili gerundioa

Gerundioa noiz erabili behar da?

Gaztelaniako gerundioa euskarara itzultzean, bide desberdinak hartzen ditugu. Batzuetan ZERTAN galderari erantzuten dioten esaldiak osatzen ditugu ; beste batzuetan, ordea, NOLA galderari, edo bestela -(e)LA, -(e)LARIK atzizkiak erabiliz egiten ditugunak.

Sarri askotan, gehiegitan, erabilitako bide horiek ez dira egokienak. Estiloari begira, adibidez, esaldi luzeegiak, eta euskararen izaerarekin zerikusi gutxi daukatenak osatzen ditugu. Egokiak ez direnak ere, jatorriz erdaraz gaizki daudenak, maiz ikusten dira.

Esaldi hauek osatzeko euskarak gerundioa egiteko dituen baliabideak urritu, eta erdarazko gerundioen ordainez, askotan, era desegokian erabiltzen ditugun aditz partizipioa + Z eta -(e)LA, -(e)LARIK atzizkiez baliatzen gara. Adibidea

-(e)LA, -(e)LARIK atzizkiak, denbora eta modua zehazteko erabiltzen dira. Sarritan erdal gerundioaren pareko dira aditz trinkoekin erabiltzen ditugunean atzizki horiek. Partizipioa +Z-rekin gertatu bezala, baztergarria iruditzen zaigu atzizki hau nonahi eta nolanahi erabiltzea.

Beraz, honako kasuetan erabiliko ditugu:

- Denborazko esaldietan**, mendeko aditzak adierazten duen denbora tartearen erdian beste zerba it gertatzen denean: Enpresa-ordezkaria bileran zegoelarik ezezko erantzuna eman zioten.
- Era honetakoak diren **moduzko perpausekin**: Parlamentarioak hitza ahoan zeukala sartu ziren manifestariak.
- Ekialdeko euskalkietan zabaldua dagoen erabilerarekin, hau da, **-enean atzizkiaren parekoa denean**: Eraikuntza horrela ikusi nuelarik, udal teknikaria naizen aldetik, botatzea erabaki nuen.

Bestelako kasuetan ETA juntagailua jartzea proposatzen dugu:

- * Enpresa-ordezkaria bileran bertan zegoen ezezko erantzuna eman ziotelarik.
Enpresa-ordezkaria bileran bertan zegoen, **eta** ezezko erantzuna eman zioten

Edo, bestela, etena egitea:

- * Kaltetutako ondasunen jabeei jakinaraziko zaie erabakitakoa, erantzunik jaso ezean ezarritako kalte-ordaina onartutzat joko delarik.

Kaltetutako ondasunen jabeei jakinaraziko zaie erabakitakoa. **Halaber**, erantzunik jaso ezean ezarritako kalte-ordaina onartutzat joko da

www.ehu.es/azpidazki webgunetik hartua.

Idazmena hobetzen: sasigerundioak

Ariketa honen bitartez gerundioak zuzen erabiltzen ikasteko zenbait pista emango dizkizugu. Behean dituzun galderen erantzun zuzena aukeratu behar duzu; ohartuko zinenez, horietako zenbait adibide aurreko ariketako idazlanetik hartu ditugu.

Gogoratu gerundioaren gaineko arauak eta adibideak [hemen](#) aurki ditzakezula.

1. Esaldi hauetatik gerundioa zein kasutan dago zuzen erabilia?

- Etxetik korrika zetorrelarik, hanka hautsi zuen.
- Denda txikien aldean, fabrikatzaileek merkeago lortzen dituzte beren produktuak, honela guri merkeago ematen dizkigutelarik.
- Eta horrek esan nahi du, behealdeko presioa goialdekoa baino handiagoa dela, horrela goranzko bultzada agertzen delarik.

2. Eta beste hiru adibide hauetan, zein kasutan dago gerundioa zuzen erabilia?

- Badakizu ahotsa horrela altxatuz, nirekin ez duzula ezer lortuko.
- Gaur haize bolada zakarrak izango ditugu Euskal Herri osoan, zenbait tokitan arriskutsuak izan daitezkeelarik.
- Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko eskatuz.

3. Erreparatu esaldi honi: **Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko eskatuz.** Esaldi horretan zein da gerundio horren irtenbide egokiena?

- Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari eta bertan, ordaindutako dirua itzultzeko eskatzen dio.
- Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, bertan, ordaindutako dirua itzultzeko eskatzen diolarik.
- Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko eskatuta.

4. Esaldi hau nahiko traketsa da, eta ez gerundioagatik bakarrik: "nola merkea iruditzen zaigun, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugularik". Zuk nola zuzenduko zenuke esaldi hori?

- Nola merkea iruditzen zaigun beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugula.
- Nola merkea iruditzen zaigun, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugularik, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugu.
- Merkea iruditzen zaigunez, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu eta ondorioz, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugu.

5. Adibide hauetatik gerundioa zein kasutan dago oker erabilia?

- Lotan nengoela joan omen zen argindarra.
- Onartuak izan ez diren izangaiek 10 eguneko epea izango dute erreklamazioa egiteko, besteen kasuan, epea beste 5 egun zabalduz.
- Italiar horrek keinu eginez adierazi zidan ez zela gurekin etorriko.

Zuzenketa-orria

3. mailako idazlana. IKUSIZ IKASI: Merkataritza-gune handiak-Idazlana hobetzen



MERKATARITZA-GUNE HANDIAK

Azkenaldi honetan nork ez du entzun "URBIL" merkatal-gunearen iragarkirik irratian? Gure gaur egungo gizarte honetan gero eta arruntagoa bihurtzen ari da honelako merkatal-gune handiak edonon ahurkitzea.

Hauek ere gauza guztiak bezala beren abantailak eta desabantailak dituzte.

Hipermerkatuak izatean beren produktuak denda normaletakoak baino askoz merkeagoak izaten dira. Izan ere, fabrikatzaileekin akordio bereziak egiten baidituzte. Denda txikien aldean nola askoz gauza gehiago erosten duten, fabrikatzaileek merkeago ematen diete **honela guri merkeago saltzen dizkigutelarik**. (ETA HONELA GURI MERKEAGO SALTZEN DIZKIGUTE).

Jendeak nahiago izaten du honelako leku batetara joatea, ez soilik merkeagoa delako baizik eta aukera gehiago eskeintzen dutelako.

Gainera, ez da ahaztu behar aisialdirako prestatuta daudela, eta normala den bezala jendeak denda txikiak baztertu eta bertara joatea erabakitzen du.

Baina hauek ere badituzte beren desabantailak. Nola merkea iruditzen zaigun, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu, **azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugularik**. (AZKENEAN, DENDA ARRUNT BATEAN BAINO GEHIAGO GASTATZEN DUGU). Hau, ez da harrizkeoa. Honenbeste argi, kolore eta txorakerirekin erdi txoratuta geratzen gara eta azkenean arratoiak tranpan bezala erortzen gara kontsumismoaren hatzaparretan.

Hipermerkatu gehiago sortu ahala gero eta denda txiki gehiago itxi dituzte. Honek niri pena apur bat ematen dit zeren ezin da konparatu zure etxe aldameneko dendako andreak emango dizun

goxotasuna merkatal- gune handi bateko milaka neskak eta mutil estresatuk emango dizutenarekin.

Bestalde, honelako toki batean denbora asko alperrigaltzen da. Dena hain da polita eta merkea **konturatu gabe orduak eta orduak ematen ditzakegularik (KONTURATU GABE ORDUAK ETA ORDUAK EMAN DITZAKEGULA)** karrotxoari bultzaka.

Nire ustetan argi dagoena hau soilik ez dela moda bat da, gure beharrei erantzuteko sortutako erainkin handiak baizik. Jendeak erosotasuna maite du eta hauek erosotasunaren errainuak direla esan daiteke. Dena daukazu bertan arraindegia, harategia,... ez daukazu herrian bezala dendan denda ibili beharrik, honelakotan dena daukazulako.

Gainera, erosketak egin eta gero kafetxo bat hartu eta musika ere entzun dezakezu. Zer nahi duzu gehiago?

Horrenbestez, esan daiteke kupidarik gabe kontsumitzeko eta entretenitzeko daudela eraikiak merkatalguneak.

Nik neuk behintzat erabaki bat hartu dut, etxe alboko dendara joatea iruditzen zait onena. Izan ere nire etxe alboko barazkiek dute inongo ongarrri kimikorik eta bertako andreak maitekiro agurtuko nau kalean ikustean.

Hipermerkatuak merkeak badira, baina, zenbateraino? Ahin merkea iruditzen zaigu azkenik behar dugunaren bikoitza erosten dugula.

Arestian aipatu dudan bezala diru eta denbora asko galtzen da, beraz, ni neu ez naiz merkataritza-gune handien aldekoa.

Idazmena hobetzen: sasigerundioak

1. Esaldi hauetatik gerundioa zein kasutan dago zuzen erabilia?

- ✓ Etxetik korrika zetorrelarik, hanka hautsi zuen.
- ✗ Denda txikien aldean, fabrikatzaileek merkeago lortzen dituzte beren produktuak, honela guri merkeago ematen dizkigutelarik.
- ✗ Eta horrek esan nahi du, behealdeko presioa goialdekoa baino handiagoa dela, horrela goranzko bultzada agertzen delarik.

2. Eta beste hiru adibide hauetan, zein kasutan dago gerundioa zuzen erabilia?

- ✓ Badakizu ahotsa horrela altxatuz, nirekin ez duzula ezer lortuko.
- ✗ Gaur haize bolada zakarrak izango ditugu Euskal Herri osoan, zenbait tokitan arriskutsuak izan daitezkeelarik.
- ✗ Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko eskatuz.

3. Erreparatu esaldi honi: **Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko eskatuz.** Esaldi horretan zein da gerundio horren irtenbide egokiena?

- ✓ Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari eta bertan, ordaindutako dirua itzultzeko eskatzen dio.
- ✗ Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, bertan, ordaindutako dirua itzultzeko eskatzen diolarik.
- ✗ Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko eskatuta.

4. Esaldi hau nahiko traketsa da, eta ez gerundioagatik bakarrik: "nola merkea iruditzen zaigun, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugularik". Zuk nola zuzenduko zenuke esaldi hori?

- X** Nola merkea iruditzen zaigun beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugula.
- X** Nola merkea iruditzen zaigun, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugularik, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugu.
- ✓** Merkea iruditzen zaigunez, beharrezkoak ez ditugun produktuak erosten ditugu eta ondorioz, azkenean denda arrunt batean baino gehiago gastatzen dugu.

5. Adibide hauetatik gerundioa zein kasutan dago oker erabilia?

- X** Lotan nengoela joan omen zen argindarra.
- ✓** Onartuak izan ez diren izangaiek 10 eguneko epea izango dute erreklamazioa egiteko, besteen kasuan, epea beste 5 egun zabalduz.
- X** Italiar horrek keinu eginez adierazi zidan ez zela gurekin etorriko.